

1.<sup>a</sup> Azkue jaunak lan eder bat irakurri digu: *Gipuzkera osotua*.

2.<sup>a</sup> Aita Intzak lan auxe irakurri du: *Cuál es el origen de la palabra agur*.

3.<sup>a</sup> Iztegiaren lanetan jaraitu degu.

4.<sup>a</sup> Angel Irigarai-ek Euskaltzaindiari agertu dizkio gutun zafetan an eta emenka dabiltzan izen zar euskaldunak. Lan au Azkue jaunak dauka ta gure EUSKERA-n argitaratu genezake.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

---

### Donostian Eusko-Ikaskuntzaren aretoan, 1933'ko Garagarilaren 27'an.

Euskaltzain jaun auek bildu dira: Azkue, maipuru; Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde ta urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitzez asi da..

1.<sup>a</sup> Ormaetxea jaunak bere *Acento Vasco* irakurri digu.

2.<sup>a</sup> Ormaiztegi-ko Alkate jaunak dei bat igortzen dio Euskaltzaindiari, esanik, Gregorio Muxika zanaren oroimenez, angoxe zeiri onen izena eman nai zayola ta araxe Euskaltzaindiaren ordezeko bat bialtzeko.

Etregarai jauna joango da ta onek ezin baleza Intzagarai.

3.<sup>a</sup> Azkue jaunak esan digu Konde jaunari eskatu bear zaizkiola iztegiako 50 bat ale, Iztegiako lanetan gain-gaiñeko laguntzaile izan zaizkigunentzat. Euskaltzaindiak baietz dasa.

4.<sup>a</sup> Eguskitza jaunak bere lan eder bat irakurri digu. Bähr jaunak oraintxe gutxi argitaratu duen lan batean,

zesan: *aditz factitivo*-tan, *-ra* ibiltzen dala edo dala, artarako *afijo*-rik bakařena. Eguskitza jaunak bere lanean, ez dala bakar bakařa dio, baizik aditz batzuek *factitivo* eragiteko egokiago dela *afijo -era*.

Beste gai batzuek bigaramonerako-utzirik otoitzez amaitu da batzařaldia.

---

### Donostian Eusko-Ikaskuntzaren aretoan, 1933-ko Garagařilaren 28'an.

Batzařaldian jaun abek dagoz: Azkue, maipuru; Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe eta Elissalde; urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitz egin da.

1.<sup>a</sup> Azkue jaunak bere lan GIPUZKERA OSOTUA irakuři digu.

2.<sup>a</sup> Lopez Konde jauna gure artera dator, Iztegi beřitzaz itz egitera. Jaun onek bere gain artu nai du Iztegi beřiaren saltzea, onenbesteko bat Euskaltzaindiari ordaindu-ta. Euskaltzaindiak onetsi ditu Lopez Konderen eskabideak: beaz jaun au gelditzen da Iztegi beřiaren saltzaile bakar. Esan zaio 50 bat ale bear dituela Euskaltzaindiak bere bařunbeko ta kanpoko laguntzaileai bana emateko. Ez du Lopez Konde jaunak eragozpenik jaři ta emango ditu uřirik ale oiek.

3.<sup>a</sup> Aita Intzak irakuři digu Arabako *Alkarte* euskaldunak egin duen araudia. Gazteiz-en bilduko omen dira *Alkarte* onen lagunak, Eusko-Ikaskuntzak antxe izango dituen batzařaldietan. Euskaltzaindiko yabon-sařaren mendean bizi nai luteke. Ortarako eragozpenik al da? Euskaltzaindiak ezetz dio, ta ongi aztertu ondoren onesten du *euskal adiskide* beři oiek erabili-ko duten ager-izena; auxe noski *Euskaltzaindiaren*